



430/2025 EBAZPENA, MARTXOAREN 5EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA PROZESU ASISTENTZIALETAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA HAUTATZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO ASISTENTZIA SANITARIOKO ZUZENDARITZAKO OSPITALEKO ARRETA KOORDINATZEKO ZUZENDARIORETZAREN PROZESU ASISTENTZIALEN ZERBITZURAKO.

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 13ko 48/2025 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzaren Prozesu Asistentzialetako Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko deialdia argitaratu zen (2025eko urtarrilaren 23ko EHAA 15. zk. eta 2025eko otsailaren 5eko BOE 31. zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, 15 egun balioduneko epea ezartzen da eskabideak aurkezteko, deialdiaren ebazpena dagokion aldizkari ofizialean azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori 2025ko otsailaren 26an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko, eta 10 egun balioduneko epea egongo da, argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan eskumenak baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikulua araberan (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.– Prozesu Asistentzietako Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua betetzeko lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

BIGARRENA.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
SUSANA LÓPEZ ALTUNA.



Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

I. ERANSKINA**PROZESU ASISTENTZIALETAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA.**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

ROBERTO CIORDIA DOMÍNGUEZ.

BAZTERTUAK:

BAT ERE EZ

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren XXX.

Baztertze arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 5- Beste batzuk.